

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2166

AGINDUA, 2024ko apirilaren 15ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita «Fundación Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz» izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa.

2024ko urtarrilaren 29an eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, «Fundación Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz» izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko.

Eskabidearekin batera espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Fundazioaren patronatuak 2023ko abenduaren 4an erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publikoan gauzatu zen Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 29an, Francisco Rodríguez-Poyo Segura notario jaunaren aurrean (protokolo zenbakia: 427).

Erabaki horren bidez, fundazioaren estatutu sozialen 17. artikulua aldatzen da, Fundazioaren zerbitzuko langileei buruzkoa.

– Fundazioaren zerbitzuko langileak (17. artikulua): Eskolako zuzendaria izendatzeko modua xedatzen da. Izendapen hori berdintasun, merezimendu, gaitasun, gardentasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak bermatuko dituen hautaketa-prozesu baten bidez egingo da.

Aurreko estatutu-bertsioan, patronatuak izendatzen zuten kargu hori, eskolako ordezkari-tza-organoren gorenak proposatuta edo eskolako irakasleen artean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezkotzat jotzen diren datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitakoa.

Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– «Fundación Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz» izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea,

agindu honen azalpen-zatian aipatutako aldaketa txertatuz, Francisco Rodríguez-Poyo Segura notario jaunaren aurrean 2024ko urtarrilaren 29an egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 427).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.